

KLIMA ALDAKETA ETA HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO GLOSATEGIA

Klima aldaketari lotutako gaiak eta haurren eskubideekin duten lotura ikasgelan lantzeko hitzak biltzea.

21 Agenda

Garapen jasagarria sustatzeko Nazio Batuen akordioa. 21 Agenda da mundu osoan, nazioetan zein tokian-tokian, giza jarduerak ingurumenari buruzko inpaktua duen arlo guztietan egin beharreko ekintzen plan zehatz bat.



Aerosol

Jatorriz naturalak (suteak, hondar ekaitzak, sumendiak, etab.) edo giza jarduerak (adibidez, erregai fosilek sortutako kea) sortuta, atmosferan solte dabiltzan partikula solidoak edo likidoak dira. Aerosol batzuek energia xurgatzen dute, eta horrek atmosfera berotzen du. Beste batzuek, berriz, hozte efektua dute, eguzki argia atzera espaziora islatzen dutelako.

Aerosorgailu

Haize energia elektrizitate bihurtzen duen makina (haize-energia). Haize-energia baliabide berriztagarria da, eta berotegi efektuko gas isurketak gutxitzen laguntzen du, ordezkatu egiten baititu erregai fosilen erabilera oinarritutako energia iturriak.



CC BY-SA 4.0 Hans Hillevaert

Albedo

Lurrak eguzki erradiazioa zenbat islatzen duen. Albedo handiagoa da gainazal zurietan, adibidez, kasko polarrean, eta txikiagoa, berriz, gainazal ilunetan, adibidez ozeanoetan. Albedo elementu garrantzitsua da planetako klima erregulaziorako.

Antropozeno

Holozenoari segida emateko zientzialarien komunitateak proposatutako aro geologikoa da. Egungo momentuarekin bat dator, argi eta garbi haren hasiera ezarri ez den arren (segur aski Industria Iraultza). Antropozenoaren ezaugarria da giza jarduerak munduko ekosistemetan oro har inpaktua izan dutela.

Atmosfera

Lurra biltzen duten gas geruzak: nitrogenoa, oxigenoa, karbono dioxidoa eta beste batzuk. Atmosfera ezin bestekoa da planetako bizirako.



Baliabide ez-berriztagarriak

Gastatuak izateko duten erritmoa berdintzeko besteko abiaduraz produzitu, birsortu edo berrerabil ez daitezkeen natur baliabideak. Adibidez, erregai fosilek, adibidez, ikatzak, petrolioak edo gas naturalak, milioika urte behar dituzte naturan eratzeko eta, ondorioz, baliabide ez-berriztagarritzat hartzen dira.

Baliabideen akidura

Eskualde bateko lehengaiak amaitu edo urritzea adierazten duen termino ekonomikoa. Iturri ez-berriztagarriak eta berriztagarriak birsortze tasa baino gehiago erabiltzea natur baliabideen akiduratzat hartzen da.



© UNICEF/UNI10771/Isaac

Banpiro elektriko

Itxuraz itzalita ere dagoenean elektrizitatea kontsumitzen duen etxetresna elektriko edo gailua.

© UNICEF/UNI13401/Sokol



Belaunaldi arteko justizia

Denboraren poderioz, belaunaldi desberdinen artean dagoen zuzentasun oreka aztertzen duen kontzeptua da, eta ez une jakin batean askotariko gizarte taldeen edo pertsonen artean dagoena. Belaunaldi arteko justiziak erreferentzia egiten dio egun planetan bizi diren pertsonen eta gizarte taldeen egindako ekintzek etorkizuneko belaunaldietan izan dezaketen eraginari. Garapen jasangarriari eta klima aldaketari oso lotutako kontzeptua da.

Bero bolada

Ohiko urteko sasoikoaz oso bestelako goi-tenperaturen aldia. Gehienetan egun batzuk irauten du.

Bero kolpe

Pertsonen gorputz tenperaturaren igoera azkarra da, 40 °C-tik gora, organismoko erregulazio termikoko mekanismoek (adibidez, izerdiak) hori kontrolatzen huts egiten dutenean.

Berotegi efektu

Lurreko atmosferan dauden gasetako batzuek (berotegi efektuko gasak) eguzki energia xurgatu eta atzera irradiatzeko duten prozesua da eta, era horretan, planetako tenperaturaren igoera global bat eragin dute, batez beste 14 °C-raino. Berotegi efektuari esker, bizia egon daiteke Lurrean; izan ere, egongo ez balitz, uste da planetako batez besteko tenperatura -18 °C izango litzatekeela. Giza jarduerak Industria Iraultzatik (XIX. mendea) isuritako efektuko gasek planetako oreka termikoari eragin diezaioke, batez besteko tenperatura igoz. Estimatzen da tenperatura globalaren 2 °C-ko igoerak ondorio arriskutsuak eragin ditzakeela planetako lurralde zabaletan, natur hondamendiak gehituz, adibidez, lehorteak edo zikloiak. Beldurra dago 4 °C-tik gorako igoerak hondamendia ekar lezakeela gizakiaren biziraupenerako.

Berotegi efektuko gasak

Gas naturalak edo gizakiak artifizialki sortutako gasak dira, atmosferako beroa atzemateko ahalmena dutenak eta berotegi efektua bizkortzen dutenak. Horien artean daude ur lurrina, karbono dioxidoa, metanoa, oxido nitrosoa eta gas fluoratuak.

Berrelikadura positibo

Aldaketa batek beste bat ekarri eta, aldi berean, jatorrizko aldaketaren efektua handitu egiten duena. Klima aldaketan, berrelikadura positiboa gertatzen da atmosfera berotzen denean eta, ondorioz, berokuntza are gehiago hauspotzen duten beste aldaketa batzuk eragiten ditutenean.

Biodibertsitate

Eskualde bateko izaki bizidunen dibertsitatea (kopurua eta espezie barietatea), izakiok edozein direla ere, tartean direla lur eta ur ekosistemak, baita horien gaineko konplexu ekologikoak ere.

Bioerregai

Arestian bizirik izandako organismoetatik edo haien hondakin metabolikoetatik edo hondar organikoetatik (biomasatik) era berriztagarrian eskuratutako jatorri biologikoko edozein erregai mota.

Biogas

Zabortegi, simaur, ur zikin edo desegiten ari diren beste hondakin material batzuetatik datorren metanoa daukan bioerregai mota. Biogasaren errekuntza berokuntza edo elektrizitatea sortzeko balia daiteke.

Birziklapen

Erabilitako materialak bildu eta birprozesatu, produktu berriak fabrikatzeko erabiliak izateko moduan.



Datu klimatologikoak

Zientzialariei klima aztertu eta aurreikuspenak egiteko modua ematen dieten gertaeren, zenbakien, neurketen eta beste informazio iturri batzuen bilduma.

Dilatazio termiko

Material batek berotzean duen bolumen handitzea. Ozeanoetan, dilatazio termikoa da itsasoaren maila igotzearen arrazoietakoa bat.



© UNICEF/UN036517/Holt;

Egokitzapen

Klima aldaketari dagokionez, egokitzapena deitzen zaio egungo eta etorkizuneko klima aldaketa eragotzi, hartatik onurak atera edo ohitzeko ekintzak egiteari. Egokitzapena aldeztu aurretik egin daiteke, aldaketak ikusgai egiten diren uneak baino lehen aurreikusiz eta planifikatuz, edo dagoeneko jazotako aldaketei erantzuna emanez.

Eguraldi meteorologiko

Toki eta une jakin bateko atmosferako egoera. Eguraldiko ohiko agerpen batzuk dira haizea, tenperatura, hezetasuna, atmosferaren presioa eta prezipitazioa. Urtetan egonkorra den klima ez bezala, eguraldi meteorologikoa aldatu egin daiteke urtaro batetik bestera, egunetik egunera edo, are, ordutan.

Eguzki energia

Eguzkitik datorren erradiazio elektromagnetikoa baliatuz eskuratzen den energia berriztagarria da. Eguzki panelak, eguzki energia elektrizitate bihurtzen dutenak, eguzki indar termikoaren atzitzailak, argia energia termikoa bihurtzen dutenak, eta arkitektura bioklimatikoa: horiek dira eguzki teknologiaren adibideak.

Ekosistema

Organismo biziak (landareak, animaliak eta bestela) eta horiek bizi eta harremanetan diren ingurune fisikoak eratutako sistema naturala. Ekosistema baten barruan dagoen elkarren mendekotasuna da haren ezaugarri oinarritzkoenetako bat.

Energia auditoretza

Etxe batek, lantoki batek edo beste eraikin batek energia gutxiago nola erabili aztertzeke prozesua, dela eraikitzen den bitartean, dela hura birmoldatzean edo erabiltzean.



© UNICEF/UNI8273/Cullen

Energia geotermiko

Lur barneko bero naturala aprobetxatuz eskuratzen den energia berriztagarria. Energia geotermikoa eraikinak berotzeko edo elektrizitatea sortzeko erabili daiteke.

Eraikin bioklimatiko

Eraikin mota honen egiteran, bere leihoek, materialek, orientazioak eta beste ezaugarri batzuek inguruneke klima kontuan hartzen dute, eta energia aprobetxatzeko modua ematen, ingurumen inpaktua txikituz.

Erregai fosil

Lurpean sortzen den erregai mota da, adibidez, ikatza, petrolio edo gas naturala. Erregai fosilek milioika urte ematen dituzte sortzen: harri geruzen artean harrapatuta geratu eta lurperatutako hondar organikoak, gero, beroaren eta presioaren indarrez, eraldatu egiten dira. Erregai fosilek karbonoa dute eta, energia ateratzeko erretzen direnean, karbono dioxidoa askatzen dute atmosferara.



Fotosintesi

Gai ez-organikoa gai organiko bihurtzen du, argiak ematen duen energiari esker. Landareek batez ere, baina baita beste izaki bizidun batzuek ere, egiten dute prozesu hau eta, haren bitartez, energia eta nutrienteak eskuratzen dituzte. Karbono dioxidoa fotosintesi zikloko zati garrantzitsua da.



Garapen jasangarri

Hiru faktoretan oinarritutako garapen eredua da: ekonomikoa, soziala eta ingurumena; era horretan, giza garapenak harmonia lortzen du ongizate ekonomikoaren, giza

eskubideen errespetuaren, demokrazia eta hiritartasuna sustatzearen eta ingurumenari eustearen artean. Hura aplikatzeko arlo batzuk ondorengoak dira: nekazaritza, industria produkzioa, moda, arkitektura edota garraioa.

Gas fluoratuak

Berotegi efektuko gasen multzoa ehunka urtetik milaka urtera gera daitezke atmosferan. Gas fluoratuak artifizialak dira, ez dira modu naturalean existitzen. Hozte eta aire girotuko sistemetan, su-itxalgailuetan, apar produktuetan, sprayetan eta beste industria produktu batzuetan baliatzen dira.

Gas natural

Gas usaingabe eta koloregabe forma duen erregai fosila. Gas naturalaren % 50etik % 90era metanoa da.



© UNICEF/UNI131951/Dormino



Habitat

Izaki bizidun bat bizi eta garatzen den tokia edo ingurunea.

Hipotermia

Gorputz tenperatura ohiko mugez behetik (36 °C-tik behera) gogoz kontra jaisten denean, arrazoi ohikoena ingurune hotza izaten da. Hipotermia larria hilgarria izan daiteke.

Hondakinen balorizazio

Hondakinetan bildutako baliabideen aprobetxamendurako prozedura. Bi hondakin balorizazio mota daude: energiarena (zaborrean dagoen energia aprobetxatzea) eta materialarena (materialen aprobetxamendua, birziklapen edo konpostaje bitartez).



Iheslari klimatikoak

Natur hondamendiek bultzatuta, beren burua jaioterritik ihes egitera behartuta ikusten duten pertsonak. Klimaren ondorioz desplazatu eta ihes egindako pertsonen kopurua handitzen ari da mundu osoan.

Ikatz

Jatorri fosileko sedimentu harria, karbonoz oso joria, eta erregai gisa baliatua. Baliabide ez-berriztagarria da, eta meatzaritzan erazten da; erreserba nagusiak Estatu Batuetan, Errusian, Txinan, Australian eta Indian daude.

Industria Iraultza

XVIII. mendeko bigarren erdialdean hasi zen eraldaketa ekonomiko, sozial eta teknologikoko prozesua, 1820tik 1840ra amaitua. Aldi horretan, gizateriaren zati



© UNICEF/UN022113/Ayene



© UNICEF/UN04307/Estey

handi batek, Neolitikotik, gizateriaren historiako eraldaketa ekonomiko, teknologiko eta sozialen multzo handiena bizi izan zuen. Industria Iraultza nekazaritza eta industriako makineriaren erabileran oinarritu zen, baita erregai fosilen erabileran (adibidez, ikatza eta petrolio) oinarritutako garraibideetan ere. Zientzialari batzuek Industria Iraultza aro geologiko berri baten abiapuntutzat jotzen dute: Antropozenoa.

Ingurumen osasuntsu baterako eskubide

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko 24. artikuluan bildutako haurren eskubidea. Ingurumeneko arriskuek kolokan jartzen dute mundu osoko haurren osasuna, eta Konbentzioko partaide diren estatuek neurri egokiak hartu behar dituzte ingurumenaren degradazioak haurren baitan eragiten dituen ondorio kaltegarriei aurrea hartu eta borrokatzeko.

Isurketak

Airera gasak (adibidez, karbono dioxidoa) edo beste substantzia batzuk (adibidez, hauts partikulak) askatzea.



Karbono

Izaki bizidun guztiontzako ezin bestekoa den elementu kimikoa. Karbonoa beste elementu batzuekin konbinatzen da askotariko osagai ugari eratzeko. Karbonoa planetako izaki bizidun guztien eta mineral askotako elementu komun bat da.

Karbono aztarna

Pertsona, familia, eraikin, erakunde edo enpresa bakoitzak atmosferara urtean isurtzen duen berotegi efektuko gasen

gutzizko kopurua. Pertsona baten karbono aztarnan sartzen dira zuzenean, dela etxea berotzen, dela autoa gidatzen, kontsumitzen duen erregaiko isurketak. Bertan biltzen dira, halaber, pertsona horrek erabiltzen dituen ondasunak eta zerbitzuak ekoizten isuritako gasak, adibidez, energia sortzen duten zentral elektrikoak, produktuak fabrikatzen dituzten industriak eta dagoeneko erabiltzen ez dituen gauzak botatzeko zaborteziak.

Karbono dioxido

Berotegi efektuko gasen artean dagoen gas koloregabe eta usaingabea. Modu naturalean sortzen da gai organikoa desegiten denean, eta landareek fotosintesian baliatzen dute. Gizakiok gero eta gehiago gehitzen ari gara atmosferako karbono dioxido mailak, batez ere erregai fosilak erretzean, adibidez, ikatza, petrolio eta gas naturala.

Karbono dioxido baliokide

Berotegi efektuko gas bakoitzaren berotze global ahalmena konparatzeko baliatzen den neurria da. Gas bakoitzak atmosferan duen iraunkortasunean eta beroa metatzeko duen gaitasunean oinarritzen da. Hari lotutako termino bat "berotze globaleko ahalmena" da, eta hori berotegi efektuko gas jakin batek, erreferentziatzeko gasen aldean (gehienetan karbono dioxidoa), zenbat bero harrapa dezakeen zehazten duen neurri erlatibo bat da.

Karbono ziklo

Izaki bizidun, ozeano, atmosfera, mineral eta Lurreko beste tokien bitartez gertatzen den karbono mugimendu eta elkartrukea da. Karbonoa toki batetik bestera igarotzen da askotariko prozesu kimiko, fisiko, geologiko eta biologikoren bitartez.

Klima

Klima deitzen zaie planetako eskualde jakin batean urteko une bakoitzean dauden baldintza meteorologikoei. Klima, estatistikoki, gutxienez 30 urteko aldietan neurtzen da. Klima eta eguraldi meteorologikoa ez dira gauza bera.

Klima aldaketa

Lurreko klimaren aldaketa adierazgarria. Egun, Lurra gero eta gehiago berotzen ari da oro har, atmosferako berotegi efektuko gasek gora egin dutelako, nahiz eta horrek ez duen esan nahi halabeharrez toki guztietan "beroa egiten" duela. "Berotze globala"k erreferentzia egiten dio planetako tenperaturen batez besteko igoerari eta, aldiz, "klima aldaketa"k berotze globalarekin batera gertatzen diren aldaketen multzo zabalagoa esan nahi du, tartean direla aldaketak biodibertsitatean, joera meteorologikoetan, ozeanoetan, elur eta izotz erreserbetan eta abarretan.



© UNICEF/UNI118547/Noorani



© UNICEF/Shehzad Noorani

Klima aldaketa goxatze

Klima aldaketa goxatzea da berotze globalak eragin ditzakeen efektuak murriztera bideratutako ekintzen multzoa. Desberdina da egokitzapenetik helburutzat prebentzioa duelako. Goxatzeko estrategia bat atmosferara isuritako berotegi efektuko gasak murriztea izango litzateke.

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa

Nazioarteko hitzarmen bat da, eta haren helburua da atmosferako berotegi efektuko gasen kontzentrazioa epe nahiko batean, ekosistemak klima aldaketara berez egokitzeko beste, egonkortzea, betiere segurtatuz elikagaien produkzioa ez dela arriskuan jartzen, eta garapen ekonomikoak era jasangarrian jarraitzea utziz.

Klima eredu

Atmosferak, ozeanoek, lurrak, izaki bizidunek, izotz masak eta eguzki energiak elkar eta Lurreko kliman eragiteko duten moduari buruzko simulazioak egiten dituen kalkulu sistema bat. Zientzialariek Lurreko klima aztertzeke eta baldintza aldakorrei, adibidez, atmosferako berotegi efektuko gasen gehikuntzari, nola erantzun aurreikusteko baliatzen dituzte eredu horiek.

Kriosfera

Ura solido dagoen Lurreko gainazaleko zatiak. Hor sartzen dira itsasoko, lakuetakoz zein ibaietako izotza, elur iraunkorrak, glaziarak, izotz eta elur geruzak, eta permafrosta.

Kyotoko protokolo

Berotze globala eragiten duten berotegi efektuko sei gasen isurketak murriztea helburu duen nazioarteko akordioa; ondorengo gasak dira: karbono dioxidoa (CO_2), metano gasa (CH_4) eta oxido nitrosoa (N_2O), hidrofluorokarburoak (HFC), perfluorokarbonoak (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF_6). Kyotoko Protokoloa 2004an sartu zen indarrean, eta 2020 arte izan da berretsia. Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa ez bezala, protokolo hau loteslea da bertako herrialde partaideentzat.



Lehorte

Uraren eskasia larria eragiteko beste irauten duen ekosistemetako eta giza kontsumorako aldi bereziki lehorra.

Lurpeko ur

Gainazalaren azpian dagoen ura, akuiferotan dabilena edo hor biltegitratua. Akuiferoak lehorte dela eta ere akitu daitezke.



Marea energia

Mareek sortutako energia berriztagarria.

Metano

Berotegi efektuko gasen artean dagoen gas koloregabe eta usaingabea. Berez sortzen da gai organikoa desegiten denean, baita giza jardueraren ondorioz ere. Gas naturalaren osagai nagusia da.





Oxido nitroso

Berotegi efektuko gasen artean dagoen gas koloregabe eta usaingabea. Era naturalean sortzen da, baita giza jardueraren ondorioz ere, adibidez, ongarrien erabilera nekazaritzan, erregai fosilen erreketak eta industriako zenbait prozesu.

Ozono

Hiru oxigeno atomoz osatutako gasa. Estratosferan dagoenean, ozonoak babeski lana egiten du Lurrarentzat (ozono geruza) eguzkiko erradiazio ultramoreko zati baten kontra. Aldiz, Lurretik gertuen dagoen atmosferako aldean (troposferan), ozonoa kutsagarria da airera produktu kimikoak isurtzearen ondorioz, eta osasunerako kaltegarria izan daiteke. Ozonoa berotegi efektuko gasen artean dago.



Permafrost

Etengabe izoztuta dagoen zoruko geruza da, poloetatik gertuko planetako lurraldeetan dagoena. Permafrostak karbono kantitate handia metatzen du.

Petrolio

Erregai fosil likidoa eta kolore ilunekoa. Petrolio gordina birfindu egin daiteke eta, hartara, askotariko produktuak eman: gasolina, diesel, asfaltoa, plastikoak eta pinturetan erabilitako konposatu kimiko ugari, estaldurak eta egunero erabilitako produktuak.



© UNICEF

Prezipitazio

Euria, kazkabarra/txingorra, elurra edo atmosferak ekarri eta lurrazalera heltzen den beste edozein hidrometeoro.

Produktuaren bizi ziklo

Produktu bat sortu, erabili eta deuseztatzeko behar diren urratsen multzoa. Produktu baten bizi ziklo baterako, Lurreko lehengaiak erauzi behar dira (adibidez, zuhaitzak moztu edo mineralak eta petrolioak erauzi). Lehengai horiek garraiatuak, prozesatuak eta manufaktura kontsumo produktu bihurtzen dira. Gero, produktua paketatuta egiten da, biltegitara, eta jendeak eros dezakeen tokira garraiatzen. Azken faseak gertatzen dira kontsumitzaileek produktua erabili, bota edo birziklatzen dutenean. Birziklapenak erraztu egiten du produktuaren bizi zikloa berriz hastea eta, hartara, lehengaiak erauzketarako behar energia gastua murriztu egiten da.

Ur lurrin

Atmosferan ura gas forman dago. Ur lurrina berotegi efektua duen gas bat da, eta lan garrantzitsua egiten du atmosferako berezko berotegi efektuan. Atmosferako ur lurrina hodeietan kondentsatzen da.



Argitalpena
UNICEF Espainiako Batzordea
www.unicef.es/educa

Haurren eskubideen, garapen iraunkorrerako eta mundu-mailako hiritartasunaren inguruko ekintza, baliabide eta hezkuntza materialak UNICEF Espainiako Batzordeak Haurren Eskubideen Hezkuntza eta Hiritarsun Globaleko lanaren parte dira, lehenago Enredate markapean eta enredate.org web gunean argtataruta egon direlarik. Bertan erakutsitako ekintza eta iritziek ez dute zertan UNICEFen ikuspuntua isladatu behar.

UNICEFek haur guztien ongizatea eta eskubideak sustatzen ditu egiten dituen ekintza guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta eremutan lanean dihardugu konpromiso hau ekintza praktikoetan bilakatzeko, gure esfortzuak batez ere ume ahul eta baztertuenetara bideratuz, haur guztien ongizaterako, edonon.



cooperación
española

Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECIDek) finantzaturiko proiektu baten parte da. Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziapean sortua izan da, beste lizentzia mota bat espreski aipatzen den edukietan izan ezik.